

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Angel Mendia Dilla

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1926-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1926. urtean jaio zen elizaz Bilbo baina udaletxez Arrigorriaga zen Abusu auzoan, baina segidan joan ziren Zornotzara bizitzera bere ama hango maistra baitzen. 14 urte zituela etorri ziren Gernikara eta bertan bizi izan da ordudanik. Ama ere Abusukoa zuen eta aita Zeanuriko Altzuste auzokoa, albaitaria. Umetan bere amagandik jaso zituen eskolak neska artean. 1937. urtean, bere ama, beste maisu-maistra asko bezala, atxilotu eta Bilboko Larrinaga eta Orue txaletean egon zen, Mutrikuko Saturrarango espetxera eraman aurretik; 1940ra arte egon zen Saturraranen. Oso ondo gogoratzen zituen garai hartako kontuak. Otxandiora joan zen bere osaba batengana eta handik La Guardia-Biasteriko seminaria joan zen, baina pare bat urtetara utzi zuen. Ama Saturrarango kartzelatik irteterakoan etorri ziren Gernika-Lumora. Iberdueroko langilea izan zen. [Emaztea](#) ere gernikarra du, Zallobieta zapata-dendakoa. Hizkeran Arratiako euskararen ukitua du, bere aitaren eraginez.

Zintak

GER-048

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-10-20
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Zornotza eta Zeanuri artean hazia

- **Erref:** GER-048/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:00:02. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bere amak Areatzan ematen zituen eskolan, eta ostean, Zornotzara joan zen. Jose Angel bertan jaio eta bizi zen, baina oporretan aitaren familiako baserrira joaten zen, Zeanuriko Alzuste auzora. Euskara bertan ikasi zuela dio eta Arratiako berbetaz aipatzen ditu berba batzuk.

2. Ama Saturrarana, bera Otxandiora eta seminariora

- **Erref:** GER-048/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Gerra sasoiaren ama kartzelan eta aita kanpoan zituela, Otxandiora joan zen osabengana. Handik Laguardia-Biasteriko seminariora joan zen. Ama Saturraranen, seminariora izandako kartzelan, zegoen bitartean, bera ere seminarioan zegoen. Ama kartzelatik irtendakoan, berak seminariora utzi zuen.

3. Amak ez zekien euskaraz

- **Erref:** GER-048/007
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Bere ama erdalduna zen, baina bera aitarekin hasi zen batzokira joaten. Hala ere, bere ama ez zuten horregatik atxilotu ez baitzebilan politikan sartuta.

4. Ama atxilotu zutenekoa

- **Erref:** GER-048/010
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:16:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere ama Zornotzako udaletxera joan zen eta han esan zioten kartzelan egon behar zuela. Handik bi egunera, etxera joan eta ama preso eraman zuten. Larrinagan, Orue txaletean eta Saturraranen egon zen. Bere amak Larrinagako kartzelan izandako bizipen batzuk kontatzen ditu, jendeak fusilatzeraz eramaten zutenekoa. Saturraranen eskualdeko hainbat pertsona egon ziren bere amarekin batera. Bere amak ezin izan zuen gehiago andereño bezala lan egin; bizi osorako zigortu zuten.

5. Saturraranera bisitan

- **Erref:** GER-048/012
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere ama Saturraraneko kartzelan zegoela, bisitan joan zitzaion Jose Angel. Militar bat-edo errukitu egin zen, eta ama agurtzen utzi zion.

6. Kartzelako bizimodua

- **Erref:** GER-048/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere amak ez zion sekula kartzelako egoeraz barbarik egin. Behin Galdakaoko neska bati jarri zioten zigorra kontatu zion amak.

7. Amaren aurkako epaiketako salaketa

- **Erref:** GER-048/014
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere amaren aurkako autuan irakurritakoa aipatzen da pasarte honetan. Epaitegiko paperetan bere ama "aférrima roja separatista" zela jartzen du. Eskolak zarratzerakoan, bere amak eskola partikularrak ematen zituen; hori dela eta, ikasleak iraultzara bultzatzen zituela jartzen zuen bere aurkako salaketan, arriskutsutzat jotz. Bukaeran, maistra bezala, "pena de reclusión perpetua con inhabilitación absoluta" ezarri ziotela irakurtzen da,

8. Saturrarango kartzelari buruzko abestia

- **Erref:** GER-048/019
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelari buruzko abestia kantatzen du: "En la hermosa Bizkaia, a la orilla del mar..."</p>

9. Nahiz eta euskaraz jakin ez, ahalegindu

- **Erref:** GER-048/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:34:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bere amak nahiz eta ez jakin euskaraz berbetan, ahalegintzen zen ahal zuenean hil solteak esateko. Behin Erreterria auzoan "egunon" esan ostean, batek esan ziona kontatzen du.

10. Eskolan neska artean; Espainiako bandera lepoan hartuta

- **Erref:** GER-048/025
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Amak ematen zizkionez eskolak, beti egoten zen neskak artean. Eskolara inspektorea joaten zenean, jai izaten zuen Jose Angelek. Gerra sasoian, Otxandion egon zen osabarenean, eta han joan zen lehenengo aldiz mutilekin eskolara. Igandero mezara joaten ziren eskolatik; behin, Alfredo Donado maisuak Espainiako bandera eramateko eskatu zion eta zer egiten zuen jakin barik kasu egin zion. Atentzioa deitu zioten eta gerora ez zuen gehiago eraman. Txapel gorriarekin joaten ziren eskolara.</p>

11. Aita albaitaria

- **Erref:** GER-048/030
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:51:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gernikako Erreteriarra etorri ziren bizitzen ama kartzelatik irteterakoan. Bere aita al baitari ezaguna zen inguruko baserrietan, intseminazioan zen trebea.

12. Abarketekin Pasealekura

- **Erref:** GER-048/036
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:00:55. **Bukatu:** 01:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gernikan estratak zeuden eta Erreteriatik Pasealekura abarketekin ibiltzen joaten zen ziren; euria egiten zuenean ortozik.

13. Neskari ezta musurik ere; tabernetan neskari ez

- **Erref:** GER-048/043
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:11:38. **Bukatu:** 01:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Konfesatzerakoan ez zuten gauza askorik kontatzen ez zutela ezer egiten; neska-lagunari ez zion musurik ere ematen. Andrak ez ziren tabernatara sartzen.

14. Anarkistak eta sozialistak

- **Erref:** GER-048/045
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:15:14. **Bukatu:** 01:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

Amaren aldeko familian, anarkistak zein sozialistak ziren, Bilbo eta Arrigorriagako Abusu (La Peña) auzoa langile-auzoa baitzen.

15. Dendetan zein azokan lapurretan

- **Erref:** GER-048/047

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:16:49. **Bukatu:** 01:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Dendetan zein azokan lapurretan egiten zuten umetan: kanpoan zegoen jeneroa, jatekoa.

16. Kanpandorrean babestuta

- **Erref:** GER-048/049
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:18:28. **Bukatu:** 01:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian, Zornotzan egon zen. Bere amak kanpandorrera eramaten zuen bonbak hasten zirenean; handik goitik inguruko guztia ikusten zuten, baita Gernikako bonbardaketa ere. Bere emaztearen familia Jainkora (Arrieta) joan zen; han ikusi zuten azkenekoz aita, desagertu egin baitzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com